

Digestio korapilatsuak

Irati Majuelo

Bidea egin du Uxue Alberdiren azken lanak argitaratu zenez gerrozitik. Baina nago dagokion baino dardara gutxiago eragin duela zenbait esparrutan. Izan ere, liburu hau ez da irakurri eta siestara lasai joateko modukoa. Aitzitik, etxeko lotsei buruz dihardu, plaza publikoko zapalkuntza sistemei eta biziraupen estrategiari buruz. Oraindik ezarrian trabatuta izango ditugu batek baino gehiagok bertan jasotako bizipen eta hausnarketak.

Emakume bertsolariak egun bizi dituzten trabak, zapalkuntzak, ahalduzko prozesuak, minak eta ilusioak aztertze asmoz, plazaz plaza dabilzan hamabost bertsolari elkarrizketatu ditu Alberdik. Argi geratzen da helburua ez dela gaur egungo

emakume bertsolarien erradiografia zehatz bat egitea, ez eta hamabost bertsolari horien ahotan emakume guztien ahotsa orokortzea ere. Baina, era berean, bide desberdinak jorratzen dituzten bizipen pertsonalak izanik ere, jatorrian zoru komun bat azaleratzen dute: sistema patriarkala. Garai bati erantzuten diote testigantzek, eta hala ere, ez dago



'Kontrako eztarritik'

Idazlea: Uxue Alberdi.
Argitaletxea: Susa.

diskurtso homogeneorik, iritziek collage bat osatzen dute, argazki osoaren tankera sumatzen laguntzen digutenak. Hausnarketarako helduleku, ekintzarako abiapuntu.

Liburu honek, hortaz, «tresna analitiko baten zirriborroa» osatu nahi luke, Alberdik berak aitortu bezala, kontrako eztarria estutzen digun korapiloa xehatu eta deuseztatze moldeak erakitzeko. 22 mugatze mekanismo detektatu ditu autoreak, eta horien arabera antolatutako elkarrizketuen testigantzak, Joanna Russek *Nola ezabatu emakumeen idazketa* liburuan hasitako bide-tik. Izan ere, liburu hau interesgarria da bertsolaritzaren unibertsioan dabilzanentzat (bertsolari, gai-jartzaile, epaile, antolatzaile, bertsozale), baina baita bestelako diziplinetakoentzat ere, berezitasunak berezitasun oinarri berera bueltatzen baikara beti. Jule Goykoetxeak hitzaurrean laburbildu moduan: «Liburu hau bertsolaritzari buruzkoa litzateke, emakumeak izaki unibertsalak balira».

Elkarrizketatuen hitzek esperientziaren zilegitasuna ematen diote liburuak azaleratzen duen

biolentziari. Alberdiren hitzek, berriz, analisia eta hausnarketa errazten diote irakurleari. Egia mahai gainean jartze horretan, bizipen zilegiztatze horretan –liburu bat behar genuen horretarako?–, esango nuke liburu honek bertsogintzaren zenbait irudi idiliko kraskatzea lortu duela, baina biktimismoan erori gabe. Izan ere, bideo irakaspenak, pozak eta ilusioak ere ageri dira elkarrizketatuen hitzetan, «gure festa» sortzeko ahalgintetik eratorriak. Eta horietan, feminismoa aipatzen dute ahalduzko tresna gisa. Autoreak kolektiboari ahotsa eman izanak ere asko esaten du, egin baitzekazkeen Alberdik diskurtso propioago bat elkarrizketak baliatuta, baina bakoitzaren hitzak zehatz-mehatz eta izen-abizenez jartzeak badu kolektiboaren aldarririk, desberdinen arteko ahizpatasunaren aldarririk.

Kontrako eztarritik irakurri ostean, ezinen dugu eduki arazo jakitun izan aurreko loadi goxorik. Ez dugu izanen ezjakintasunaren aitzakiarik, ez ezikusiarrena egiterik. Digeritzeko asko daukagu oraindik.



'Bizitza motor gainean'

Idazlea: Xabier Mendiguren.
Argitaletxea: Elkar.

Ainara da Xabier Mendiguren liburuaren protagonista, 18 urteko gazte bat. Amari aurre eginez, ikasketak utzi eta amonaren etxera joango da bolada baterako. Handik bidalitako eskutitzen bidez joango da irakurlea Ainara nahiz haren ingurua ezagutzen: bururatsen zaizkion ideiak, gertatzen zaizkionak...



'Bertsolari' 115. zenbakia

Argitaratzailea: Bertsolari aldizkaria.

Argitaratu berri du udazkenean alea *Bertsolari* aldizkariak. Bertsolamintza jardunaldietako gogoetak, orain gutxi hildako Iraola anaien bizitzari buruzko testuak, eta bertsolaritza eta beste diziplina batzuk uztartuz zenbait sortzailek eskuartean dituzten proiektuak jaso ditu, besteak beste.



'Hemen' 62. zenbakia

Argitaratzailea: Frontera.

Erlitio gogoetarako *Hemen* aldizkariak *Demokrazia: S.O.S* izena jarri dio bere azkeneko zenbakia. Artikulu bana idatzi dute Daniel Inneratyk, Xabier Ezeizabarrenak, Xabier Aierdik, Victor Codinak, Xabier Itzainak eta Txema Ramirez de la Piscinak. Ohiko atalei ere eutsi die.

Nor ez da martetar izan?

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Ipuintxo ilustratua da, irudimen jolas baten bidez, senide txikiarekin duen harremanaz pentsarazten diona irakurleari. Beharrik, etxe askotan gertatzen den egoera hori: haurrideen arteko harreman, zaharragoa denaren ikuspuntu-tik behatuta.

Ipuineko haur txikia pare bat urteko haurra dela suposatzen behar dugu, eta balizko irakurlea lauzpabost urtetik aurrerakoa. Izanburuak iradokitzen duenez, kontakizunaren gako haurride zaharragoi txikiagoek egunero koan nola eragiten dieten aztertea da, umorea erabiliz.

Martetar gisa izendatuta, distantzia bat eskaintzen zaio irakurleari, emozioak libreago adierazi ahal izan ditzan. Halako liburuak bitartekari batekin irakurri ohi dira, alegia, haurrak belarritik irakurtzen du. Halere, badira pasarte batzuk letra lotuan idatzita daudenak, haurrak halako grafiarekin praktikatu dezan, eskolan grafia mota hori erakusten badiete, bederen.

Biziki gomendatuko nioke liburu halako unea bizi duen edozein familiar, baina, betiere, haurra estutu gabe, irakurketa-ariaketa sufriarazle bat bihurtu gabe. Otoi.



'Nola bainatu martetar bat'

Idazlea: Franco Vaccarini. **Ilustratzailea:** Carlos Higuera. **Itzultzailea:** Xabier Olaso. **Argitaletxea:** Ibaizabal.

Irazkia

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Ipuin luzea da, hamar ilustrazioekin jantzia, eta izenburu gabeko 29 ataletan banatua. Protagonista Arrakok neskatua da, nerabezaroan sartu berria. Labor, eta gako direnak adierazi gabe, konta daiteke istorioa abiatzen dela amonaren baserri hustutakora Arrakok eta gurasoek egiten duten bisitan. Arrakok ganbaran amonaren kutxa zaharra zabaltzen du, eta han barruan topatzen dituenak iragane-ramango dute.

Zein iragan bisitatuko ditu? Askoko eta molde guztietakoak. Arbasoak, emakumeak batzen dituen hari mataza, 36ko estatu kolpea, gurasoen familien iragana... Bakoitzeko hausnarketarako ate bat zabaltzen dio irakurleari, baina atez bestealde dagoenaz gutxi esa-

ten zaigu. Mitologia, feminismoa, gerrako galtzaile eta irabazleak, osteko jazarleak eta jazarriak, horien ondorengoak, gurasoekiko komunikazioa... Izanburuak diotenaren kontrara, hari mutur asko eskaintzen dira.

Halere, irakurketa jario batean doanez, erritmo bizian, balizko irakurle nerabeei zein hari muturri heldu dioten galdetuko nieke, eta handik tiraka hasi. Bide batez, ilustrazioek kontakizuneari duten partaidetza itzela iruditu zait.



'Hari single bat'

Idazlea: Idolia Garzes. **Ilustratzailea:** Leire Urbeltz. **Argitaletxea:** Erein.